

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko ekinaren 2an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

9.- BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Bolumen Handiko hondakinen bilketa zerbitzua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Etxeko bolumen handiko hondakinak batzeko kontratua REZIKLETA, S. COOP. enpreseagaz 2010eko bagilaren 30ean amaitzen da. Beraz, zerbitzu hau barriro kontratura atara behar da, prozedura ireki bidez.

Kontratua lau urterako izango da (urte bi eta beste urte beteko luzapen bi). Kontratuaren prezioa 114.000 €koa izango da, BEZ kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 7.980 €koa da (Danera 121.980 €).

Kontratuaren prezioa lehen urterako 28.500 €koa da, BEZ kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 1.995 €koa da (Danera: 30.495 €).

Bilketa zerbitzu honen kostu guztia udalarentzat, bilketa eta azken kudeaketa kontutan edukita, izango litzateke, BEZ barne: $30.495 + 6.000 = 36.495$ euro/urtero. Lau urteetarako, 145.980 €.

Bigarrena: 2010eko martiaren 23an, kontu-hartzaileak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2010eko apirilaren 14an, Tokiko Gobernu Batzarrak kontratua bideratzeko baldintza tekniko eta administratiboak onartu ebazan.

Laugarrena: 2010eko apirilaren 14an, kontratazinoaren iragarkia Bizkaiko Boletin Ofizialera bidali zan eta apirilaren 26an argitaratu zan. Bertan zehazten zan bezela, proposamenak aurkezteko 15 eguneko epea egoan; hau da, maiatzak 11rarte.

Bosgarrena: 3 enpresen proposamenak jaso dira:

1. REZIKLETA, S. COOP.
2. CESPAS, S.A.

3. DESTRUDATOS CONFIDENCIAL, S.L.

Seigarrena: "A" gutun-azal guztiak zabaldu ondoren, 2010eko maiatzaren 13an Destrudatos Confidencial S.L. enpreari bere Kaudimen Profesionala bermatzen duen ziurtagiria aurkeztea eskatu jakon, hiru laneguneko epean. Ziurtagiri hau epe barruan aurkeztu zan eta ontzat hartu da.

Argudioak

Lehenengoa: Aurkeztutako enpresek zerbitzu hau epe barruan gauzatzeko eta administrazio baldintza tekniko eta administratiboetan adierazitakoaren arabera, gauzatzeko ahalmena daukatela adierazi dabe.

Bigarrena: Jasotako proposamenak aztertu ondoren, hona hemen lortutako puntuazioa adjudikazio irizpideak kontutan hartuz:

1. Proposamen ekonomikoa (0-50 puntu)

REZIKLETA S.COOP	CESPA, S.A.	DESTRUDATOS
33 (23.644,87 €)	45 (22.046,20 €)	23 (25.137 €)

Sistema de valoración: fórmula cálculo de baja temeraria y ponderación. Precio anual base: 28.500 €

2. Zerbitzua beteteko, proposatutako egitamu teknikoaren kalidadea: (0-30 puntu)

REZIKLETA S.COOP	CESPA, S.A.	DESTRUDATOS
28 Zerbitzuaren helburuak, deskripzioa, baliabide materialak eta giza baliabideak, legedia: ederto	20 Zerbitzuren deskripzioa, eta prospektiba ondo, baliabide materialak eta giza baliabideak, azterketa ekonomikoa ederto.	13 Zerbitzuaren deskribapena eskasa: ordutegia?, abisuen jasoera?, lan egutegia?, komunikazio kanpaina? Proposamena euskaraz

3. Baldintza teknikoen agiriari buruzko hobakuntzak. (0-20 puntu)

REZIKLETA S.COOP	CESPA, S.A.	DESTRUDATOS
20	14	5
<p>Ampliación abanico residuos: mobiliario escolar/institucional doméstico (puertas, tarimas..) o industrial (palets, estantes..)</p> <p>Recogida ocasional gratuita vertidos incontrolados: avisa Ayto, mismo día de recogida, residuos accesibles, máximo 1 viaje</p> <p>Recogida ropa: 5 contenedores, vaciado semanal. 15.293 €/año. Descuento 50% primer año</p> <p>Recogida domiciliaria voluminosos reutilizables, desmontados o embalados (!), mensual, 2040 €/año (¿cómo sabe el usuario?)</p> <p>2 campañas recogida ropa gratuitas (este servicio desaparece!!)</p> <p>2 campañas recogida juguetes, libros, bazar, etc con las campañas de ropa (desaparecen las campañas de ropa!!)</p> <p>Visitas guiadas para colegios Bermeo a mercado Kooperera, etc. 50 €/visita, máx 25 pax <10 años (autobús aparte!)</p> <p>Dto 4.450€ renuncia Bº industrial para mantener empleos</p>	<p>8 días de refuerzo al año gratuitos (servicios especiales) (¿gestión de avisos...?)</p> <p>Campaña comunicación (5500 pegatinas-calendario, 300 carteles eusk/cast) 3.300,77 €</p> <p>Recogida adicional opcional los viernes de 7 a 10:30, 9.951€ (Gestión de avisos?)</p> <p>Recogida PxP voluminosos (minusválidos) y transporte Gernika a 65,01 €/h</p> <p>Instalación 5 contenedores recogida ropa, vaciado semanal 19.036,71 €/año</p> <p>Otras mejoras: reserva de maquinaria, asesoramiento técnico.</p>	<p>Dohanekeo laguntza elbarritakoa izan ezker (zehaztu barik)</p> <p>Egindako zerbitzuen informazio puntuala (zehaztu barik)</p> <p>Udaletxeko kontenedore ekologikoen bilketa eta suntsiketa dohan (protokoloa zehaztu barik)</p> <p>Bolumen handikoen pilaketa sei hilabeterarte enpresaren Mungiakeo instalazioetan (¿?)</p>

Oharra: prezio guztiak BEZa barik dagoz.

GUZTIRA: REZIKLETA: 81
CESPA: 79
DESTRUDATOS: 41

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Udaleko kontratua **REZIKLETA, S. COOP.** enpreseari esleitzea. Kontratua **urte birako** (2) iraupena izango dau 2010eko garagarrilaren 1ean hasita, eta beste urte bi (2) luzatu egin daiteke.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko ekainaren 2an.

ONETSIA
ALKATEA